

berria

GARAZI ARRULA

Korrikako
mezuaren egilea

JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Gasteizko Udalak dirua itzultzea exijitu dio Lazarragari, antzokia irekitzeko

→ Kultur elkarteak berretsi du ezinezkoa zaiola laguntza bueltatzea, eta konponbide «integral bat» eskatu dio udalari.

→ Maria Nanclores Euskara zinegotziak agindu du proiektua egingo dela, «hiri proiektu bat» delako.

EUSKAL HERRIA | 6

«Imanol Pradalesek gehiengo zabal baten alde egingo du, nekatu arte»

ITXASO ATUTXA
EAJren BBBko
presidentea

EUSKAL HERRIA | 8



IKUSPEGI ALDAKETA

Euskararen egoera

Hizkuntzaren inguruan garatzen ari diren diskurtso «emergentez» mintzatu dira Euskal Soziolinguistika Jardunaldian.

HARIAN | 2-3



Makila eta gozokia, a zer smakizuna!

BIZIGIRO | 30-31

Euskal Herriko
Itzuli menditsua

Maiatzaren 10etik 12ra egingo dute emakumezkoen egutegian Euskal Herrian jokatzeko den World Tourreko proba bakarra. Gasteiz eta Donostia lotuko dituzte hiru etapatan.

KIROLA | 17

Nafarroak eta Madrilek ituna egin dute trafikoko eskumena ziurtatzeko

Foru Hobekuntzan erreforma egitea hitzartu dute bi gobernuek, trafikoa itzultzeko prozesua juridikoki sendotzeko. Espainiako

Auzitegi Gorenak eskualdatzea baliogabetu zuen, dekretu bidez ezin zela egin ebatzita.

EUSKAL HERRIA | 10

«Tamalez edo zorionez, euskarak ia guztia dauka irabazteko»

EUSKAL HERRIA | 4-5



Iosu Alberdi

EAJren Bizkai Buru Batzarreko presidente Itxaso Atutxak (Bilbo, 1967) ez du etenik izan hauteskundeak pasatu izanagatik ere. Astelehenean bildu ziren Euzkadi Buru Batzarreko kideak bozen lehen balorazioa egiteko, eta atzo gauza bera egin zuen BBBk. Bilera horren aurretik erantzun zituen Atutxak BERRIAREN galderak. Azterketa kuantitatibotik kualitatibora igarotzea du datozen egunetarako helburua.

Garaipena eskuratu duzue botoetan, eta berdinketa eserlekuetan, baina ordezkari kopuruan eta ehunekoetan behera eginda. Zein da EBBk egindako lehen balorazioa?

Lehen balorazioa poztasunarena ere bada. Azken hilabeteak bizi izan ditugu EH Bilduren ingurua eta zenbait hedabide ia-ia EH Bilduren *sorpasso*-a ospatzen. Eserlekuetan parekatuta gaude, baina guk botoetan gora egin dugu, eta esan dezakegu lehen alderdia gara. Egia da EH Bilduren gorakada ikaragarria dela. Onartu behar da, objektiboa delako. Baina, gurei erreparatuta, kanpainen esaten zen datuak 2016koagaz konparatu behar zirela, eta haie-tatik hurbil gaude.

Gipuzkoan ez duzue lortu botoetan gora egitea, parte hartzea handitu arren. Lurralde horretan gertatutakoak analisi propio bat behar du?

Uste dut hiru lurraldeetan egin behar dugula. Gipuzkoan oso lokalizatuta geratu da gure botoa; hiri handietan, eta ez horrenbeste txikiagoetan. Baina besteetara ere zabalduko nuke. Ohitura daukagu herriz herri aztertze, mugimendu konkretu bat egoten baita, eta hori aztertu egin behar da azken urteetako ibilbidearen barruan. Gaur zenbaki zehaztean egin behar dugu balorazioa, baina etzidamu datuak kualitatiboki aztertzen hasi behar dugu. Gizarte baten nahiak eta kritikak kualitatiboetan ikusten dira.

Lehen aldiz, lehiakide bat izan duzue lehen postua lortzeko borrokan. Ziklo politiko berri batez hitz egin daiteke?

Guretzat bai, lehendakari berria daukagulako. EAJn halako zikloak heldu eta amaitu egiten dira: Urkulluk bere zikloa izan zuen, Ibarretxek berea, eta orain Imanol Pradalesen zikloa hasiko da. Hortik hartzen dut zikloarena. Azkenean, bi alderdiek [EAJ eta PSE] gobernu berria osatzen badugu ziklo berri bat hasiko delako, beste pertsona batzuek. **Ziklo berri horrek gobernatzeko eredu berriak ekarriko ditu?**

«Otegi ezin dio esan zer egin gehiengo izango duen gobernu bati»

ITXASO ATUTXA

EAJren BBBko presidentea

Atutxak uste du ziklo berri bat hasiko dela, baina Pradales lehendakaritzara iritsiko delako. Esan du «luzaro itxaron» gabe hasiko direla EAJ eta PSE gobernu berriaz hizketan.



MARISOL RAMIREZ / FOKU

Beti aldatzen dira gobernatzeko ereduak. Funtsezko izaera bat geratzen da, beti eskaintzen duguna berme moduan. Baina politikan egokitze hori beti izaten da, gizartearen beharrak ezberdinak direlako, egiteko moduak aldatu egiten direlako. Uste dut Imanol Pradalesek ez duela hutsik egingo.

Kanpainen herri akordio kontzeptua aipatu zuen. Hori izango da gobernatzeko eredu berria?

Azken legealdi honetan, ikusi dugu gehiengo osoa izanda ere zer-nolako ahalegina egin duen Iñigo Urkulluren gobernuak legebiltzarrean gehiengo zabalagoak lortzeko. Imanol Pradales ezagutzen duen edozeinek badaki gehiengo zabal horren alde egingo duela, nekatu arte. Gehiengo osoa izanda, gobernuaren alde egingo dut beti, baina horrek ez du seku-

la ekidin behar ahalegin berezia egitea gehiengoak zabaltzeko, gizartearen aniztasuna gobernu politikan islatu dadin.

EAJk eta PSEk, biek esan duzue bestea lehentasunezko bazkide dela. Hitz egiten hasi zarete?

Nik dakidanez, atzo [astelehenean] bi alderdietako buruzagiek hitz egin zuten batzartzeko asmoagaz, baina ez dakit egunik zehaztu zuten. Ez dut uste, baina ez da luzaro itxaron behar. Dena dela, lehenengo bilera bat egiten da, eta gero hasten gara programak begiraten. Luzea izaten da, baina ohitura badaukagu: amankomunean ditugun puntuak aztertu, eta desadostasunen inguruan gutxieneko akordioak egin. **Azken legealdian baino ordezkari gutxiago dituzue; haiek, berriz, gehiago. Atzo esan zuten «exijenteagoak» izango direla.**

Horrek indar korrelazioak egokitu ditzake Jaurlaritzan?

Gobernuz gobernu aztertzen da hori. Jakin behar da zelango Jaurlaritzara eratu nahi duen Imanol Pradalesek. Ez dakigu sailburu kopuru bera mantendu nahi



«Bi eserleku gehiago dituzte [PSE-EEK]. Hori kontuan eduki behar da»

duen, sailak egungo edukiekaz mantendu nahi dituen... Aztertu behar da. Horretarako, lehenik eta behin, gobernu programa bat landu behar da.

Baina ulertuko zenukete PSE exigenteagoa izatea?

Bai, ziur. Emaitzak berdinak direnean ere beti dute arrazoiaren bat euren presentzia handitzeko. Eta bi eserleku gehiago dituzte. Hori kontuan eduki behar da.

Andueza gogor aritu da estatus berri posible baten kontra. 2020an adostasunetik kanpo geratu zen auzi hori. Berriz ere hala gertatuko da?

2020an, salbuespen bezala geratu zen iritzi ezberdinak genituela gai horren inguruan, baina ez landuko ez genuenik. EAJrentzat beti dago agendan. Eneko Andueza entzun dut, baina badaki bere nagusi [Pedro] Sanchezek EAJrekin sinatu duela herri honen instituzionalizazioa lantzen jarraitu behar dugula, eta, batez ere, estatus berriaren egokitzapena heldu behar dela. Anduezak berriro erreparatu behar du 2020an zer sinatu genuen PSErekin, eta gero PSOeko buruzagi eta Espainiako presidentea denarekin. Eta guk sinatutakoa betetzeko eskatuko dugu.

Sinatuta geratu zen oinarrien eta printzipioen gaineko akordio bat ere.

Egindako lana handia eta zabala izan zen, eta kontuan eduki behar da. Egia da orain Podemos ez dagoela, baina ez nuke zakarrantzira botako orain arteko lana. Baina beste gauza bat ere gogoratu behar da: akordioaren ostean, adituek batzordean lan egin eta gero, EH Bildu izan zen akordio horretatik irten zena. Hori kontuan hartuta ere, uste dut berriz hasi behar dugula adostasuna izan genuen puntutik, ea gaur egun nola egokitzen den.

Atzo Otegi esan zuen «herri mandatua» ezkerrekoa eta abertzalea dela. Bat egiten duzue tesi horrekin?

Gure programa idatzita dago, eta hori da gure bermerik handiena gizartearen aurrean. Gizartearen babesa izan dugu, eta orain gobernuak berak egin behar du bere programa. Ahalegindu behar du gehiengo zabalak lortzen parlamentuan, baina uste dut Otegi ezin diola esan zer egin behar duen ustez gehiengo osoa izango duen gobernu bati. Hiru alderdien artean adostasun zabalagoak lortu behar ditugu. Hiruren artean diot, zaila dirudielako PPgaz inongo akordiorik lortzea, eta ez gaude prest Voxekin elkarrizketarik izateko. Gero, Sumarren ordezkartza dago, baina ez dakit haren profila den benetan Sumarrek kanpainen aurkeztu nahi izan duena. ●